

Etxebizitzako zuzendari nagusia

ELGA MOLINA ROIG

Tarragonan jaio zen 1982. urtean.

Zuzenbidean doktorea (2017) eta lizentziatua (2010) da, Kontratazioaren eta Enpresaren Zuzenbideko masterra du (2012), eta Higiezinaren Administrazioan eta Kudeaketan diplomatu zen (2005) Rovira i Virgili Unibertsitatean.

Higiezinaren Zuzenbidean espezializatutako aholkulari juridikoa da 2015. urteaz geroztik, eta Tarragonako Etxebizitza eta Hiri Jardueren Udal Enpresan (SMHAUSA) lan egin du hainbat udaletarako (Bartzelona, Altafulla eta Vila-seca Udalak) eta hainbat erakundetarako (Amnistía Internacional, Bartzelonako Hiri Jabetzaren Ganbera eta URVren Etxebizitza Katedra). Horrez gain, Europako bi proiektutan parte hartu du, hiri-errentamenduei eta etxegabetzei buruzko Europako Batzordearentzat, Kataluniako etxebizitza-errentamenduen eskubidea gauzatzeko Batzordearen zuzendaritza teknikoan eta honako lege hauek arautzeko lan-bileretan: etxebizitza-eskubideari buruzko 12/2003 Legea, etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan errentei eusteko premiazko neurriei buruzko 11/2020 Legea eta hiri-errentamenduen Legea aldatzeko 7/2019 Errege Lege Dekretua.

Bartzelonako Etxebizitza Sozialaren Kontseiluko kidea da, aditu gisa. Tarragonako Eskualdeko Consell-eko Etxebizitza Bulegoko arduraduna izan da hamabi urtez eta Rovira i Virgili Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko irakasle elkartua ere bai.

Ohiko kolaboratzailea da Diari Ara, Sepín, El Derecho-Lefebvre eta Wolters Kluwer aldizkarietan. Gainera, lau rogei hitzaldi baino gehiago eman ditu etxebizitzaren sektoreari buruz, eta berrogeita hamar argitalpen baino gehiago egin ditu gai horren inguruan, bereziki hiri-errentamenduei dagokienez. Nabarmentzekoa da 2018an doktorego-tesia argitaratu zuela Tirant lo Blanch-ekin; hots, "Etxebizitzaren errentamenduetarako erregulazio berri bat

Europako testuinguru batean”. Halaber, “Etxebizitzako hiri-errentamenduetako obrak eta konponketak” liburua argitaratu berri du Aferrekin.

2024ko uztailan, Etxebizitzako zuzendari izendatu dute.